

## **IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ORDENANTZA ALDATZEKO PROIEKTUA EGIN AURRETIKO HERRI KONTSULTA**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa betetze aldera, eta aldaketa egin aurretik, lehenago aipatu den ordenantza aldatzeko proiektuari buruz alderdi hauek planteatzen dira:

### **a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.**

Iruñerriko Mankomunitatearen Administrazio Elektronikoa Arautzen duen Ordenantzaren aldaketa egin, izapidetu eta onartu nahi da. Hauek guztiek beharrezko egiten dute Mankomunitatea testu berri batez hornitzea, 2012az geroztik indarrean dagoena ordeztuko duen testu batez: alde batetik, 39/2015 eta 40/2015 legeak, 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duena, eta gaia funtsean ukitzen duten beste xedapen batzuk, hala nola Segurtasunaren Eskema Nazionalak edo Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalak eta arau ugari gehiago, eta, bestetik, bitarteko teknikoaren bilakaera eta, zirkulua itxiz, administrazioarekin komunikatzeko modu hauek gizartearen edukituen garrantzia, COVID-19aren pandemiak eragindako konfinamenduak direla-eta.

Testu arauemaile berri honekin lortu nahi da erregulazio osoa eta egungoa, aipatu den araudi horren arabera eta Mankomunitateak jada zerbitzua ematen duen eta etorkizunean eman behar duen baldintzak arautuko dituen. Hala, tresna berria izango da, herritarrei emango diena Mankomunitatearekin dituzten harremanetarako esparru erregulatzailerik osoa.

### **b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.**

Sustatu nahi den proiektu arauemailea beharrezkoa eta egokia da, erregulazio honekin, zalantzarik gabe, balio erantsia lortuko baita erabakiak hartzeko prozesuan, esparru juridiko argia, osoa eta propioa edukitzean.

Ordenantza hau eguneratzeko beharra administrazio-prozedurako indarreko legeriarekin bat datorren testu bat egokitzea komenigarri izatetik eratortzen da (39/2015 eta 40/2015 legeak) eta bai Sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendurekin bat datorrena egokitzea komenigarri izatetik ere.

**c) Arauaren helburuak.**

Funtsean, Mankomunitatea eta herritarrak hornitu nahi dira esparru juridiko erregulatzailerik batez, elkarren artean komunikatzeko moduak eta bitartekoak erregulatuko dituenaz. Elektronikoki nola erlazionatu zehaztea da asmoa eta bai nola erlazionatu ez-elektronikoki, bi moduak batuta espedienteen barne-garapenarekin, nahitaez eta derrigorrean, soil-soilik elektronikoki izango den garapenarekin.

Iruñerriko Mankomunitateari egotzitako eskumenen esparruaren barnean, Ordenantzaren xedea da izapidetze jarduketak erregulatzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearekin eta Sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamenduarekin lotuta.

**d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.**

Ez dira planteatzen.

**e) Herri-kontsultaren hartzaileak.**

Iruñerriko herritar guztiak.